

SANTIAGO AUO-KO HITZARMEN KOLEKTIBOAREN BATZORDE MISTOAK APLIKATU BEHARREKO PRESTAKUNTZA-FUNTSAK BANATZEKO IRIZPIDEAK.

16. ARTIKULUA. IKASKETETARAKO LAGUNTZAK.

«Santiago ospitaleko (egun, Arabako ESI) prestakuntzarako **9.000 €-ko funtsa** finkatu da. Pertsonaleko gastuak ordaintzeko izango da, zehazki lanpostuarekin zeharka lotutako ikasketetako gastuak ordaintzeko, betiere Osakidetzan dauden postu funtzionalei lotutakoak.

Hitzarmenaren batzorde mistoak ezarriko ditu funts hori banatzeko sistema eta irizpideak».

Funts hori Arabako ESIko langileei esleituko zaie, lehentasunez: bai lan-kontratudun finkoei bai erretiratutakoak ordeztzen dituzten lan-kontratu partzialeko langileei (errelebo-kontratua duten txandakako langileak).

Lan-kontratua duten langileen eskaeren artean banatu ostean, oraindik banatzeko dirua geratuko balitz, gainerako langileen eskaeren artean banatuko litzateke (izendapen estatutario finkoko langileak, bitartekoak, behin-behinekoak eta ordezkioak – Arabako ESIan gutxienez 6 hilabeteko kontratua izan dutenak, aurren).

BETEKIZUNAK:

Laguntza horiek honako hauek eskatu ahal izango dituzte:

1. ARABAKo ESIko lan-kontratu finkoa duten langileek eta erretiratutakoak ordeztzen dituzten lan-kontratu partzialeko langileek (errelebo-kontratua duten txandakako langileak).
2. ARABAKo ESIko izendapen estatutario finkoko langileek, bitartekoek, behin-behinekoek eta ordezkioek – Arabako ESIan gutxienez 6 hilabeteko kontratua izan dutenak, aurren.
3. Laguntza horiek 2023ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31ra bitartean egindako ikasketetarako dira.
4. Prestakuntza jarduera asistentzia edo matrikulazio ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

1. Interesa dutenek Arabako ESIaren intranetaren bidez aurkeztuko dute eskaera:
https://osakidetza.sharepoint.com/sites/EsiArabaOsi_Profesionales/SitePages/formcont/eu/ayudform.aspx
2. Eskaera telematikoki bidali baino lehen, eskatzaileak kopia bat inprimatuko du. Behar bezala sinatu eta erregistratu beharko da Txagorritxu-Behe Solairua edo Santiago-2. C erregistroetako edozeinetan
3. Nahitaezko dokumentazioa
 - a. Ikastetxeko organo eskudunak **zigilatutako eta sinatutako faktura originala**, eskatzailearen izenean ordaindu dela adierazten duena, edo eskatzaileak ikastetxera egindako **banku-transferentziaren jatorrizko egiaztagiria**, ordaintzeko arrazoia eta data ere jasotzen dituen.
 - b. Bertaratze-ziurtagiriaren kopia, kongresuetarako, edo amaiera-ziurtagiria, prestakuntza-ikastaroen kasuan.
 - c. Jatorrizko beste faktura edo ordainketa-frogagiri batzuk (ostatua, joan-etorriak, etab.).
Kongresura/ikastarora joateko ezinbestekoak diren gutxienezko gau-kopurua ordainduko da, gaueko 90 €-

ko gehieneko mugarekin, BEZa barne. Mantenu-gastuak: 21 €, bazkari edo afariagatik BEZa barne, eta 6,30 €gosari bakoitzeko (ostatuan ez badago)

- d. Hala badagokio, kongresuan posterra/komunikazioa aurkeztu izanaren ziurtagiriaren kopia, sinposioa, eta horren egileak agertzen diren lekua.

4. Ikasturte akademiko bateko edo modulu bat baino gehiagoko iraupena duten ikasketetan, **ikasgai bakoitzaren lehen matrikula lagunduko da diruz**, eta, horretarako, egiaztagiri akademiko originala aurkeztu beharko da eskaeran.

Eskaerak aurkezteko epea: 2024ko azaroaren 4tik 29ra.

OSAKIDETZAKO POSTU FUNTZIONALEN BARNEAN LANGILEAREN PROMOZIOA AHALBIDETZEN DUTEN IKASKETAK EMATEN DITUZTEN ZENTRO OFIZIAL EDO HOMOLOGATUETAKO IKASKETETARAKO LAGUNTZA-ESKAERA.

Sanitatearen arloko ikasketak egiten dituztenek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek, bai alderdi klinikoen alorrekoak (ikerketa barne), bai kudeaketa eta administrazioaren alorrekoak.

Laguntza hauen onuradunak prestakuntza jarduerak prestakuntza entitate ofizial edo homologatuek eman dituzten pertsonak izango dira. Baldintza hori frogatzeko bi aukera daude:

1. Entitatea Ministerioko SEPEko (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) Prestakuntza Entitateen Estatuko Erregistroan inskribatzeko agiria aurkeztea.
2. Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen zigilua duen ziurtagiria aurkeztea.

Matrikula-gastuen % 50 ordainduko da, gehienezko muga 500€-koa delarik eta gutxienekoa, berriz, 100€-koa, betiere eskatutako zenbatekoa 100€ baino gehiagokoa bada. Zenbateko hori gainditzen ez duten gastu guztiak osoki ordainduko dira.

Profesional bakoitzak eskaera bat baino gehiago egiten badu, emandako laguntzen zenbatekoa ez da inoiz 1000 euro/urtea/pertsona baino handiagoa izango.

Soberakinik balego, Prestakuntza Funtzari esleitu dakioke, eta arlo defizitarioenari adjudikatu.

ZENTRO OFIZIALETAN EMATEN DIREN HIZKUNTZA- ETA INFORMATIKA- IKASTARO ETA -IKASKETETARAKO LAGUNTZA-ESKAERA.

Ikastaroaren gastu osoaren % 50 ordainduko da, eta aurrez ordainagiri originala aurkeztu beharko da. Gehienezko muga 500 €-koa izango da.

Hizkuntza-maila egiaztatzeko azterketako tasak osorik ordainduko dira.

Era berean, diru-laguntza ezingo da inolaz ere onuradunak egindako prestakuntza-jarduerako matrikularen zenbatekoa baino handiagoa izan, laguntza hori bera bakarrik edota beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoak kontuan hartuta.

Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa dagokion gehieneko kopururaino murriztuko da. Halakorik gertatuz gero, eskatzaileak, eskaerarekin batera, eskatutako edo jasotako kopuruaren izaera eta zenbatekoa justifikatzen dituzten egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu, bai eta emakidaren ebazpena edo laguntza-eskaera ere.

Aurreko kasu guztietan, aurrekontuan ez balego nahikoa diru eskari guztiari erantzuteko, ehuneko bat murriztuko zaio eskaera orori –guztiei berdin–; murrizketa hori beharrezko proportzioan egingo da esleipenaren guztizko zenbatekoak funtsaren zenbatekoa (9.000 €) inoiz ez gainditzeko.

Soberakinik balego, Prestakuntza Funtsari esleitu dakiok, eta arlo defizitarioenari adjudikatu.

ESKAERAK EBAZTEA

Dokumentazio osoa duten eskabideen zerrenda eta deialdiaren baldintzak zuzendu behar dituzten edota betetzen ez dituzten eskabideen zerrenda Arabako ESIko intranetean argitaratuko dira. Zuzenketak egiteko 10 laneguneko epea zabalduko da.

Zuzentzen ez bada, interesdunak eskabideari uko egiten diola ulertuko da

Laguntza horiek Araba ESIko Langileen Kudeaketako zuzendariaren ebazpenaren bidez onartu edo ukatuko dira, eta erabakia Araba ESIko intranetean argitaratuko da.